



Gaizka Amondarain
Irakaslea

«Debaldeko festa»

1994a zen. ETB1en «Debaldeko festa» izeneko zuzeneko berezi bat ematen ari ziren. Joxerra Gartzia -garaian «Hitzetik Hortzera» saioa aurkezlea zena- gidari lanean eta gonbidatuen artean lau bertsolari gazte: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu. Bertsolariak performancearen erdian zeudenean, Irazuk esprai bat atera eta “Kalea geurea da, ertzainik ez” pintada egin zuen plato-ko horma batean. Saioa moztu eta iragarkietara jo zuten atoan. Irargarkietatik bueltan, Joxerra Gartzia Bernardo Atxaga elkarrizketatzen ari zen bitartean, emanaldia eteteko agindua heldu zitzaion aurkezleari. Amatiño zen EITBko burua sasoi hartan, Atutxa Barne Saileko agintari gorena. Gertaerak sortu zuen harrabotsaren ondorioz, “Hitzetik Hortzera” saioa bertan behera geratu zen urte batzuetarako. Pintadarena baino lehen ere, makina bat tirabira izan ziren bertsolaritzari buruzko saioa egiten zutenen eta hedabide publikoko arduradunen artean. Ajuriaeneko Itunaren ondorengo urteak ziren.

Joan den astean jakin dugu, EITBko zuzendaritzak, «Altsasukoak aske» zioen kamiseta jantzita eramateagatik, Laudioko ekoizle bati sukaldaritza saio baterako egindako elkarrizketa zentsuratu zuela. Duela pare bat hilabete, gauza bera gertatu zitzaion Kuartangoko abeltzain bati ere, Espainiako telebista publikoan ematekoak ziren programa baterako elkarrizketa egitera joan zitzaizkionean. Orduan ere, Altsasuko gazteen askatasunaren aldeko leloa paparrean idatzita eramateak ez bide zien grazia handirik egin.

Biak ala biak telebista publiko batean emandako zentsura kasuak izateak larritasun handiagoa ematen die salaketoi. Bata “Euskal Erdiko” telebista publikoan gertatu izana are eta larriagoa da, nire ustez. Zaila baita ulertzeko, herri honen gehiengoak Altsasuko gazteekin egiten ari direna injustiziatzat jo arren, gure telebista publikoko arduradun politikoek horrelako erabakiak hartzea eta gero inork azalpenik ez ematea horren inguruan.

Sentitzen dut bertan lanean ari zareten asko eta askorengatik, badakit kritikez nekatuta egongo zaretela honezkero eta zuen aldetik onena ematen saiatzen zaretela egunero, baina herri honetan bizi garen askorentzat jasanezina bihurtu da gure telebista eta irrati publikoetan gero eta agerikoagoa den lerrokatze ideologikoa. Noiz eta Amatiñoren sasoi-
tik 25 urte pasatu direnean. Noiz eta testuingurua erabat desberdina den.

Negargarria iruditzen zait ETAre-
n amaierari buruz ekoitzi den saio txukunena TV3 Kataluniako telebis-
ta publikoan ikusi behar izatea eta gurean –Espainiako gainontzeko ka-
teetan bezala– bere ibilbidean zehar egindako atentatuetan eta eraginda-
ko hildakoetan zentratzea mende erdi iraun duen eta frankismo ga-
raian sortu zen erakunde baten his-
toria.

**Negargarria iruditzen zaidan mo-
duan -ez forman bakarrik, baita
edukietan ere- espainiar kateeki-
ko gure telebista publikoan azken
hamarkadan eman den homologa-
zio prozesu azeleratua.** Eta egoera
aztertze-ko Gasteizko Parlamentuan
lan-talde bat sortzea beharrezkotzat
jotzen badut ere, eztabaida publikoa
izan behar dela uste dut. Eta horre-
rako, norbaitek pentsatzen badu he-
rritarren iritzia ezagutzeko inkesta
bat egitea nahikoa dela, debaldeko
festa daukagu zati baterako. •



AMONDARAIN